EL DIARIO VASCO

Ezkio

# Sagar kulturaren festa ospatuko dute larunbatean Igartubeitin barrikotearekin

Dolarea zuzenean ikusteko aukera izango dute bertaratutakoek, baita sagardoa dastatu eta kirikoketarekin gozatzeko ere

Dolare ikusgarria gertutik ezagutuko dute parte hartzaileek. GALILEA

C.L.
ezkio-itsaso.

Miércoles, 29 de marzo 2023, 22:21

Comenta

Festa giroa izango dute larunbatean Ezkioko Igartubeiti baserri museoan. Izan ere, urtero moduan, barrikotea ospatuko dute, edota antolatzaileek aurkeztu duten moduan: Sagar kulturaren festa.

Udaberriroko hitzordua da barrikotearena. Sagardogintzako lan guztiak amaitzen direnean antolatzen den ohitura zaharrenetarikoa da. Alegia, barrikotea ziklo oso baten emaitza da, prozesu luze baten azken uzta, Sagardo astean urrian baserri dolarean egindako Igartubeitiko sagardoa dastatzeko urteko une bakarra, Ezkioko baserri museoan azpimarratzen duten moduan.

«Antzina, lan guztiak amaitzen zirenean, upel bat muztioz betetzen zuten. Bi aste geroago bizilagunen arteko festa bat antolatzen zuten Barrikotea dastatzeko. Baserri Museoan, sagardoa dastatu aurretik lan ezberdinak burutu behar izan

trikitilariek girotua. Aurtengo hitzordua apirilaren 1ean jarri dute.

Hasteko, 16:30ean dolarearen funtzionamendua gertutik ezagutzeko aukera izango dute bertara hurbiltzen direnek. Baina, horren ostean, sagar zukua eta sagar bizkotxoa egingo dituzte, sagar goxoak dastatu ahal izateko.

Ekitaldirik politenetakoa etorriko da ondoren kirikoketa emanaldia izango baita 17:30ean. Sagardogintzari lotutako perkusio musika tresna tradizionala, laneko tresnekin, mazekin, pats-oholak joz sortzen du musika. Txotx irekieraren txanda izango da horren ostean, udazkenean ekoizten hasitako sagardoa dastatzeko unea, hain zuzen. Eta jardunaldia, behar den bezala amaitzeko, afari merienda egingo dute bertaratutakoek.

Parte hartu ahal izateko, aurrez izena eman behar da, 943 72 29 78 eta 943 72 51 07 telefonoetara deituta edota igartubeiti@gipuzkoa.eus helbide elektronikora idatzita. Prezioa 3 eurokoa izango a.

Comenta

Reporta un error




Publicidad

Lo más leído

**EL DIARIO VASCO**

2 La llamativa esquela con dedicatoria en Irun: «Tanta hija puta cerca y se tiene que morir mi suegra...»

3 Ana Obregón, madre de una niña por gestación subrogada a los 68 años

4 «Ha sido un susto descomunal ver el fuego al lado de casa, el miedo se te mete dentro»

5 La pensión media de los nuevos jubilados en Gipuzkoa supera por primera vez los 2.000 euros

Ver más

Publicidad




Noticia patrocinada

SKYSHOWTIME



Sylvester Stallone llega a la pequeña pantalla como un capo de la mafia en la serie "Tulsa King"

Publicidad

EL DIARIO VASCO


Recomendaciones para LEIRE



Las gemelas la lían: amenazan a Julian Iantzi, insultan gravemente a la dirección... y se van

Xabier Garate

Muere un hombre en Donostia tras ser golpeado por un tronco de gran tamaño en su jardín

La llamativa esquela con dedicatoria en Irun: «Tanta hija puta cerca y se tiene que morir mi suegra...»

Favoritos de los suscriptor



El impactante aterri aeropuerto de Hon viento

A. A.

La llamativa esquela con c se tiene que morir mi sueg

Fallece un donostiarra Sebastián

EL DIARIO VASCO

© Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A.
Domicilio social en Mikeletegi Pasealekua 1. 20009 - Donostia-San Sebastián

vocento

Webs de Vocento

En lo posible, para la resolución de litigios en línea en materia de consumo conforme Reglamento (UE) 524/2013, se buscará la posibilidad que la Comisión Europea facilita como plataforma de resolución de litigios en línea y que se encuentra disponible en el enlace https://ec.europa.eu/consumers/odr.

Contactar Aviso legal Condiciones de uso Política de privacidad Publicidad Mapa web Política de cookies